



dezkariekin, belatokia. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

### IGONE LAMARAIN

EHEko bozeramailea

«Haren grina eredu moduan hartu behar dugu»

«EHE sortzeaz gain, beti egon da EHErekin harremanetan. Beti izan du prestasuna bereganajo dugunean. Iazko otsaileko ekitaldia oso garrantzitsua izan zen, omenaldia egin nahi geniolako.

Ez genuen omendu soilik EHEren sortzaileetako bat izan zelako, haren ibilbideari gorazarre egin nahi genion.

»Euskalgintzari kristoren ekarpena egin dio. Euskarari, idazle eta ikertzaile moduan egin dio ekarpena, baina, gainera, beti egon da euskararen alde borrokan.

»Haren grina eta borrokarako

gogo hori eredu moduan hartu behar dugu. Euskaltzaleon erreferentzia nagusien artean egongo da etorkizunean ere. Beti jarri izan du euskara denaren gainetik eta, denok hori egingo bagenu, gauzak oso ezberdinak izango litrateke. Harentzat lehentasuna euskara eta herria ziren, eta gero zetorren gainerako guztia».

### JOAN MARI TORREALDAI

Idazlea eta euskaltzaina

«Egin zuena gauza bat da, baina, batez ere, eragile izugarria izan zen»

«Harreman zuzena izan dut 1960ko hamarkadatik. Zuzena, estua eta konfiantza handikoa. Harremanetan oso zuzena eta xaloa zen, nahiz eta jende askok berari buruz polemiko irudia. Polemikoaren idatzietan eta ideietan. Harreman pertsonaletan oso beroa zen.

»Jakin-ekin zuen harremana haserre batekin hasi zen: aldizkariak lehen zerbaitetan Orixeren bidea hartu zuelako. Geroago, zuzendaritza berriarekin, euskara modernoaren aldeko apustua egin zuen, eta hor Txillardegia eta Mitxelena izan ziren aitaopontekoak. euskara modernoarena ez da bakarrik hizkuntzaren arazo bat, baita pentsamendua ere.

»1964an, Baionako bileran, Txillardegia izan zen euskara batuaren aldeko eragile nagusietakoa. Euskara batuaren prozesuan *Jakin* izan zen Txillardegiren ideien

plataforma nagusia. Hor harreman estua eta bizia izan nuen berarekin.

»1960ko hamarkadako belaualdikoontzat etxeko anaia nagusia bezala izan da. Egin zuena gauza bat da, baina eragile izugarria izan zen. Ausarta zen, printzipioetan finkoa, korrontearen kontra joateko beldurrik gabea, kezkatua, oso kezkatia, intelektuali irekia, konformagaitza eta euskal kulturaren barruan Europako korronte modernoak sartu zituen lehenetakoa. Euskalgintzak izugarri zor dio. Euskara batuaren egiazko aita izan zen. Ez Aresti, ez Mitxelena. Ez alferrik Krutwigek bere euskara batuari *txillardegikera* deitzen zion».

### JOXE AUSTIN ARRIETA

Idazlea

«Hiru aita espiritual izan ditut, eta horietako bat izan da Txillardegia»

«Ohore handia izan da horrelako gizon erraldoi baten laguna izatea. Behin baino gehiagotan esan eta idatzi dut hirur aita espiritual izan ditudala, nire bizitzan, euskaltzaletasunean eta munduan izateko moduan: aita biologikoa ere banuena, euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna txikitatik sartu zizkidana; Juan Mari Lekuona, ikasle garaian eta gero euskal kulturaren ikuspegi zabala eskaini zidana; eta Txillardegia, euskaldun moderno bezala bizitzen erakutsi ziguna».

kuntzaren borroka elkarrengandik berezi zituzten. (...) *Gerorako* eta besteentzako utzi zuten gaele-raren arazoa».

Txillardegiren azken urteotako talaiatik itxaropenaren zantzuak ikusten ziren euskararen auzian. Atzera begira botatako begiradari baikortasuna zerion. Beste «herri-pizkundeen» argitan euskararen belaualdia iritsiko zelakoan joan zaigu, nik uste. Berak zioenez, «herri-pizkunde guztietan, lehendabiziko abertzale belauna hizkuntza arrotzez baliatzen da. Bigarrena, aldiz, nazio-hizkuntzaz. Etorkizunari buruz, hortaz, bertako hizkuntza ez dakien belauna, atzeraturik gelditzen da laster; eta gelditze hori da hain zuzen aurrerapenaren termostato on bat».

Euskararen herriaren branka belaualdi berrietan zekusan, beraz. Oraingoek eta etorkizuneko euskal belaualdiek ez al diote hutsik egingo Txillardegiren itxaropenari! Horrenbeste merezi du guztiontzat eredugarri izan den euskaltzale abertzale handiak. Zorretan gaude, zorretan egongo dira. Hi izan haiz gure itsasargia.

## Txillardegiren brankan

### Joxe Manuel Odriozola

Euskara irakaslea

Soziolinguistikaren bidegurutze nagusietan ere Txillardegia ageri zaigu. Bere abertzaletasunaren ardaztean euskara zegoenez, euskal nazionalismo linguistikorearen aitzindari izan dugu. *Euzkotar* eta *abertzale* askorekin izandako eztabaidak eta gorabeherak ditugu horren lekuko: Txillardegia borroka horretan ere eredugarri izan dugu, euskararik gabeko abertzaletasunik ez zuelako onartzen inola ere. Euskal Herrian Euskaraz mugimenduaren sortzaile izanik, alderdi politikoaren erdal praxiak zapuztu zituen bere ametsak.

*Branka* aldizkariako garaietatik dakusagu Txillardegiren euskaltzaletasun irmoa. Euskal Herriaren arimatza zeukan euskara: «Hizkuntza da herri baten sorkaririk funtsezkoena, bere nazio-jakintzaren oinarria. Hitz batez:

hizkuntza da herri baten arima». Nazio-hizkuntzaren inguruan artikulatutako nahi zuten euskal nazioaren izaera. Euskal nazio-identitatearen osagaririk funtsezkoena euskara da bere begietan, gainerakoak gainerako. Euskara galdutako lurraldeetan euskal nortasunaren ordezkapena etorri baita ondoren: «Geroztik gailendu da espainiera alderdi horretan; eta geroztik ere, espainol hizkuntzarekin batera, espainol izana, espainol izan nahia eta euskalduneko ukoa. Beste hitz batez, hizkuntzarekin batera, herrikitetasun berri bat nagusitu da, naziotasun berri bat, eta azkenean abertzaletasun berri bat».

Euskararen arazoa testuinguru nazionalaren koordenatuetan ezarri zigun euskaltzale handiak. Euskararen normalizazio soziala ez da hizkuntza-kontu hutsa, inplikazio sozial eta nazional sakonak dituen problematika da. Ez zuen sinesten euskaltzaletasun

aratzean, nazio-boterearen arteko lehiatik eta borrokatik haratagoko soziolinguistikatik. *Branka*ko bere lanetan jadanik garbi zegoen auzi hori: «Erresumak erabakitzen du hizkuntzen etorkizuna; eta gero eta nabarmenago da hau egia. Auziaren karkoa horretan datza. [...] Egan dezagun, beraz, oraingo, eta erresuma hau den edo hura den aztertu gabe, erresuma dela hizkuntzen etorkizuna erabakitzen duena».

Euskal estatu independenterik gabeko euskararen normalizazio soziala pentsatze hutsa zentzugabea da Txillardegirentzat. Baina bera izan zen, inor izatekotan, Irlandako atarramentu hitsa gure artean gehien azpimarratu eta kritikatu zuenetakoa. Ez zuen geroko gerotan utziko zuen hizkuntza-politikarik aditu ere egin nahi gurerako: «Irlandarrek *gerorako* izan zuten hizkuntzaren soluzioa, lehentasuna beti besteri eman zitoten, irlandar postu gorenetan hizkuntza ez zekiten onartu zituzten, abertzale borroka eta hiz-

### Komentarioak

berriketan.info

«Txillardegia hil da. Euskaltzale handi bat. Besteak beste, erakutsi digu euskaldunok fidelak garela gure hizkuntzarekin, euskara gehiago ez erabiltzeko oztopoa euskara ez dakitenak direla, zaila dela euskara erabiltzea tartean euskara ez dakitenak badaude. Lan handia egin du, eta badugu zer ikasi Txillardegik egindakotik eta Txillardegia izandakotik». ■ **Joanmari Lararte**



«Txillardegia gure euskal Noam Chomsky handia zela esanez motz geldituko nintzateke».

■ **Pernando Barrena**

«Euskaltzale eta abertzale handia joan zaigu. Goian bego».

■ **Markel Olano**

«Gaur gure historiaren zati bat joan da, zuek piztutako suak ekarri gaitu hona, Agur eta Ohore, Txillardegia!». ■ **Beñat Zarrabeitia**

«UEUren ibilbidean ondoan izan dugun laguna, kidea eta partaidea joan zaigu. Agur eta ohore Txillardegia». ■ **UEU**

«Txillardegia gogoan. Gure garaia aitzindari. Gure hizkuntzaren buruzagi».

■ **Bingen Amadoz**

«Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegia* hil da. Banekien euskararen belaualdia iritsiko ez du kolpea leundu. Agur eta ohore!». ■ **Iñaki Soto**

«Goian Bego Txillardegia, euskal kulturaren sustatzaile garrantzitsuenetakoa, nahiz ta espainiar egunkarientzat, «fundador de ETA» bakarrik izan». ■ **Telmo Aldalur**

«Gure historian erraldoi».

■ **Luistxo Fernandez**

«Donostiako Udalak kale bat edo plaza bat eskaini beharko lioke #txillardegia-ri. Goian bego, maisu». ■ **Arkaitz**

«Txillardegia hil da. Batek daki non geundeeen bera bezelakoa lanik gabe».

■ **Irudion**